

## **ELKARTEAK:**

Gure enpresak neurri batean irabaziak lortu ahal izateko, herriko beste enpresa txikiekin aliatu egingo gara, alde batetik merkataritza justua sustatzeko eta bestetik gure zerbitzuaren eskaintza patrozinatzeke. Honen bidez, beste enpresek bezero gehiago lortzeko aukera izan dezakete eta guk irabazien zati bat jasotzeko aukera izango dugu.

Beraz, gure bezeroak herriko supermerkatu erosketak egitera eramango ditugu eta horren truke % 15eko irabaziak lortuko du gure enpresak. Gainera taxi zerbitzua eskainiko dugu alde batetik bestera mugitzeko eta horren truke taxi enpresatik irabazien % 10 jasoko dugu. Zerbitzu hauek ziurtatzeko, gure bezero nahiz langileek txartela baten bidez identifikatuta egongo dira.

Honetaz gain, herriko hartzaindegi, eguneko zentro eta jubilatuen zentroekin elkarteak sortuko ditugu. Denen artean, haien bezeroei gure zerbitzuaren berri emango zaie. Hartzaindegiarekin adibidez, beste zerbitzu batzuk proposatuko ditugu hala nola, arratsaldeetan edota gauetan haurrak zaintzea. Izan ere, ez dituzte zerbitzuak 24 orduetan eskaintzen.

Gainera, udaletxearen bidez gure zerbitzua promozionatu eta salduko dugu. Gizarte zerbitzuaren laguntzarekin, etxe guztietara karta bat bidaliko dugu gure enpresaren ezagutza sustatzeko.

Elkarteak sortzearen helburua arriskuak murriztea, baliabideak eskuratzea eta negozio eredua optimizatzea da, hau da, gure zerbitzua patrozinatzea.